# PR-Gi 1002

## Igoringo trikuharriak

8,5 Km / 3 h 05 min




**NATURA PARKEETAKO IBILBIDE SAREA**

Gipuzkoako Natura Parke bakoitzak bere ibilbide sarea du. Homologatutako eta ondo seinaleztatutako bide hauen bitartez babesgune bakoitzeko intereseko puntu nagusietara gerturatzeko aukera eskaintzen da. Modu horretan natura baliabideen inguruan ezagutza eta errespetua sustatuz. Gipuzkoako Natura Parke ezberdinak, berriz, DSS2016 GRSAREAren bitartez saretuak daude.

**RED DE SENDEROS DE LOS PARQUES NATURALES**

Cada Parque Natural de Gipuzkoa alberga su propia red de senderos. A través de estos senderos, homologados y bien balizados, se ofrece la oportunidad de aproximarse a los puntos de interés de cada zona protegida. Promoviendo, de este modo, el conocimiento y el respeto por los recursos naturales. Los distintos Parque Naturales de Gipuzkoa, en cambio, están entretejidos a través de la DSS2016 GRSAREA.




### Profila
Perfil




Luzera | Longitud
8,5 km

Desnibela | Desnivel
+445 m / -452 m

## PR-Gi 1002

### Igoringo trikuharriak

Epeletik hasita proposatzen den ibilbide borobila da. Txangoan zehar, Epele errekaren inguruak ezagutzeaz gain, kostaldearen ikuspegi bikaina ere izan daiteke. Hala ere, Igoringo lepotik eta Akolatxarako gainaren arteko eremuak aipamen berezia merezi du, bertan, gure arbasoen garaietara eramango gaituzten hainbat monumentu megalitiko aurkitzen baitira.

Es un recorrido circular que, partiendo desde Epele, permite conocer las riberas del río y descubre unas vistas inmejorables de la franja costera. Por otro lado, la zona comprendida entre el collado de Igorin y la cima de Akolatxara merece una especial mención, ya que en ella se ubican varios monumentos megalíticos que ayudan a dar un paso hacia tiempos remotos.

### Interes puntuak | Puntos de interés

a



EPELE ERREKAREN INGURUAK: Ibilbidean zehar, Hernaniko eta Astigarragako mugetan barrena, gurutzatzen den erreka honek kalitate handiko urak daramatza. Hori dela eta, bertan Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoan dauden bisoi europarra edota muturluze piriniotarra bezalako animaliak aurki daitezke. Errekaren inguruan dagoen basoaren berezitasunetako bat, Europan ohikoa ez dena, erreka-ertzetik kanpo dauden haltzak dira.

RIBERAS DEL RÍO EPELE: A lo largo del sendero, atravesando las mugas de Hernani y Astigarraga, transcurre este río que transporta aguas de gran calidad. Es por ello que en él habitan especies del Catálogo de Especies Amenazadas de la CAPV como el visón europeo o el desmán del pirineo. Una de las características del bosque que está alrededor del río, y que no es habitual en Europa, son los alisos alejados de la rivera.

b



SAGASTIETAKO LEPUA I TRIKUHARRIA: Sagastietako lepoan (edo Saratsetako Lepuan) kokaturik dagoen, eta 1950 urtean indusketa egin zitzaion, trikuharri hau Kalkolitiko garaikoa da eta, inguruan dauden antzeko egituren artean hobekien kontserbatu dena da. Hala ere, gaur egun ikusgai den 5 harlosaz osaturiko forma triangeluarra, badirudi garai batean errektangeluarra izan zitekeela. Bertan zintzilikario batzuk aurkitu ziren.

DOLMEN DE SAGASTIETAKO LEPUA I: Este dolmen situado en el collado de Sagastieta (o Saratseta), el cual fue excavado el año 1950, es de la época Calcolítica y es una de las que mejor se han conservado de entre las estructuras similares de los alrededores. Aún así, parece ser que la forma triangular formada por 5 losas de piedra visible actualmente pudo ser en tiempos pasados rectangular. En él se hallaron algunos colgantes.

c



IKUSPEGIA: Sagastietako lepotik Hernanitik Donostiaranzko ikuspegi ederrak daude eguraldia lagun denean. Faro de la Platatik hasi eta Igeldoraino ikus daiteke, bistak eragozten dituen inolako oztoporik ez dagoelako.

VISTA PANORÁMICA: Desde el collado de Sagastieta, cuando el tiempo acompaña, existe una hermosa vista panorámica desde Hernani hacia Donostia. No habiendo ningún obstáculo que impida la vista se puede ver desde el Faro de la Plata hasta Igeldo.

d



AKOLAKO ATSEDENLEKUA: Hernaniko udal eremuan dagoen atsedenleku honetan mahaiak eta aterpe bat daude. Izen bereko baserriak, ondo kontserbatutako, saroi bateko arta-mugarri bat du. Kareharrizko mugarri honek, goiko planoan, zizelkatutako 8 segmentu ditu erdigunean dagoen zirkulu batean amaitzen direnak. Inguruan Gipuzkoako estazio megalitiko garrantzitsuenetako bat ikusteko aukera dago.

ÁREA RECREATIVA DE AKOLA: En esta área de recreo situada en el municipio de Hernani hay mesas y un refugio. El caserío del mismo nombre conserva, en buen estado, un arta-mugarri (mojón central) de una majada. Este mojón de piedra caliza tiene tallados, en su cara superior, 8 segmentos que finalizan en un círculo central. En los alrededores existe la posibilidad de visitar una de las estaciones megalíticas más importantes de Gipuzkoa.

### MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 2 | 3 | 3 h 05 min |
| **Inguruan arriskuak egon daitezke**<br>El medio no está exento de riesgos | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Mandabideak**<br>Marcha por caminos de herradura | **3 ordutiketik 6ra bitarteko ibilaldi jarraia**<br>De 3 a 6 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK |

### + INFO

+ info MIDE
www.mide.org

### Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena<br>Continuidad de sendero | Norabide aldaketa<br>Cambio de dirección | Norabide okerra<br>Dirección errónea |
|---|---|---|

### + INFO



www.gipuzkoaoinez.eus

### Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

- **Txakurrak beti lotuta eraman.** Los perros deberán ir atados.
- **Saiatu mendira bakarrik ez joaten.** Intenta no ir nunca solo al monte.
- **Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.** Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.
- **Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.** No abandones ni entierres la basura.
- **Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.** No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.
- **Animaliak larratzen** Animales pastando

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

### Legenda
Leyenda

- **Ibilbide hasiera** – Inicio de sendero
- **Atsedenlekua** – Area recreativa
- **Ikuspegi panoramikoa** – Vista panorámica
- **Monolitoa** – Monolitos

arazi

Hernaniko Udala

Gipuzkoako Mendizale Federazioa